

Shu Otero



## Munstro hau, gorputza, mirari hau, bere mina

Urtarrilean Euskadi Irratiko *Faktoria*-n Olaia Inziarte musikariari egindako elkarrizketak honako lerroburua zekarren: *Dena dago prestatua zauria ez erakusteko*. ‘Dena’ hori egitura zabal eta konplexua da, baina momentu batez zauriaz eta ondoezaz ari-  
tzeko hizkuntzetan pausatu nahiko nuke, eta begi-  
ratzen saiatu nola dagoen mina eta gaitza erakus-  
teko gure gaitasuna.

Azkenaldian apur bat ohikoagoa bihurtu da ‘osasun mentalaren’ lelopean erakustea hainbat zauri, zen-  
bait plataforma eta instituzioren mekanismoei es-  
ker ‘moda’ baten itxura ere har dezakeena, horrek dakarren indar despolitizatzaile guztiarekin. Eta, noski, baldintzapenekin. Errespetagarritasun eta onargarritasunaren mugek nahiko zurrinak izaten jarraitzen dute, zauria nola, non, noiz, *zeintzuk* eta *nork* erakusteko, horretarako ere badaude hegemoniak eta periferiak. Eta kontuz periferiekin, taburen bat apurtu, arrisku alarmak piztu eta munstroke-  
riaren esparrura hurbiltzen has ez zaitezten. Munstrokeriaren esparruaren beharra dugu, noski; nola mantenduko ditugu bestela psikiatrikoak, kartzee-

lak, CIEak eta entzierrorako beste espazioak? Zertarako beharko genituzke polizia eta muga nazionalak, besteak beste, munstrorik ez balego?

Osasun mentalaren esparru hori guztiz baztertu gabe baina horri apur bat tiratuz, badirudi gaitz 'kontenporaneo' askok halako ezaugarri interesgarri bat dutela: gaitz fisiologiko eta psikologikoen banaketa klasikoa gainezkatzearen bitartez besterik ezin direla ulertu. Are gehiago, arreta pixka bat jarriz gero, banako gorputzaren eta gizartearen, kulturaren, animalia zein landare erreinuen, planetaren beraren egoera lotuta agertzen zaizkigula. «Depresioa, ala kapitalismoa? Fatiga kronikoa, ala etengabeko estres jasangaitza? Sentsibilitate kimiko multiplea, ala kutsadura global saihetsezina? Atentzio defizita, ala hiperestimulu eta algoritmoen garaia? Disforia, ala eraso zisheterosexista eta arrazista etengabeak? Antsietatea, ala izaki bizidunen suntsiketa sistematikoa? Deserrealizazioa, ala presentzia berrezartzeko baliabide espiritualen suntsiketa?» bezalako galderak pizten dituztenak. Ez dira bata edo bestea aukeratuz erantzutekoak, gainera. «Munduak gaixotzen nau fisiko-emozional-espirituala den modu batean», orokortzen doan posizio politikoa. Gaitz kontenporaneoek izatearen banaketan suntsiketa erregutzen digute, haietaz hitz egin ahal izateko.

Hitz egiten al dugu nahikoa zauriez eta minez, edozein formatakoak direla? Idazten al dugu nahikoa zauri eta gaitzen hizkuntzan?

Aurten mende bat betetzen duen *Gaixo egoteaz* testu klasikoan, Virginia Woolfek hainbat adierazpen interesgarri egiten zituen gaixotasunaz hitz egiteko literaturak ordura arte izandako gabeziak: *arraroa da benetan gaixotasunak ez hartu izana bere tokia amodioaren eta guduaren eta jeloskortasunaren parean literaturaren gai nagusi bezala, eta literatura ahal bezainbeste saiatzeko bere arduraren gogoarekin dela berresten, eta gaixotasuna literaturaren gai izateko desabantailen artean dugu hizkuntzaren urritasuna.*

Hori nuen buruan aurreko astean, fisioterapeuta berri baten ohatilan etzanda, gorputzeko hainbat puntutako minen deskribapenak emateko eskaeraren aurrean hitzak ezin topatu nabilela. Minaren esperientzia deskribatzeko zailtasun eta urritasuna dugu; eta galdera, ea noraino minaren gertakariaren berezko ezaugarria den ezin hitzetara ekartzea, ala hezkuntza, arte eta literaturaren porrota dugun gaitasun hori ez garatu izana, hau da, kulturarena.

Ezagutzen duzue koilaren teoria?

## Beste hizkuntza bat ikasi dut zauriei hitz egiten hasteko

Hau da istorioa, laburrean: 2003an, Christine Miserandinok, jateixe batean lagun batekin zegoela, lupusarekin bizitzearen esperientzia komunikatzen saiatzeko esperimentu txiki bat proposatu zion, jolas bat ia. Inguruan zuena eskuan hartu (hamabi koilara), eta eskatu zion lagunari imajinatzeko nola izango litzatekeen egun arrunt bat, jakinda egin beharreko ekintza bakoitza koilara bat 'kostatuko' zitzaiola, eta, behin koilarak amaituta, ezingo lukeela beste ezer egin egun horretan. Lagunak lehen koilara 'lanera joateko prestatu' ekintzarako erabili nahi izan zueanean, Miserandinok azkar jakinarazi zion 'lanerako prestatu' ekintzaren barruan 'altxatu', 'gosaria prestatu', 'medikamentuak hartu', 'dutxatu', 'arropak aukeratu' eta 'jantzi' bezalako ekintzak daudela, eta egunaren arabera horietako bakoitzak koilara bat eska dezakeela, edo gehiago. Egun arrunt batean, etxeko atea irekitzerako sei koilara 'gastatu' dituzula jada. Hori da lupusarekin bizitzea, beste hainbat gauzen artean.

*Spoonie* edo 'koilaratxoak' gara egunero esnatzearekin horrelako kalkulua egiten bizi garenak. 'Koilara' zubi bezala, bi munduren artean, zutituen hizkuntza hegemonikoaren eta kronikoon elebitasun subalternoaren artean.

Bitxia iruditu zait beti koilararen erabileraren ausazkotasuna, istorioari xarma ez bazaio falta ere. Jolas imajinariotik metaforara mugitzeko baimena banu, esango nizueke niretzako fatiga gehiago dela, koilara eskukada bat baino, pospolo kutxa bat. Izan ere, ekintza bakoitzak kontsumitzen duena nahiko dinamikoa izan daiteke, eta ondorioen larritasuna ere aldakorra. Goizero, kutxatxoan begiratu eta pospoloak zenbatu, eta gero, egunaren mugimendu bakoitzarekin, erabakiak: nola asmatu noiz erreko den pospoloa motelago edo azkarrago? Behin pospoloa piztuta, noraino ausartuko naiz hatz punta artean heltzen? Erretzen banaiz, gai izango al naiz bihar pospolorik heltzeko, edo itxaron beharko dut babak sendatu arte? Zer egin dezaket esku arteko su txiki horrekin, eta zeri eman ahal diot su pospoloak behar direnerako gorde ahal izateko?

Pasa urte batzuk pospoloak zenbatzen, eta edonork edukiko luke zeozeri su emateko gogo menderakaitza.

Hauek dira, bilatuz gero, fatigan topa daitezkeen potentzia batzuk: gauzak amaitzen uztearen alaitasuna, produkzioaren eta erreproduk-

zioaren etenaldia ospatzea, indarrak orainerako eta merezi duenerako gordetzea, ez elikatzea suntsitzen gaituena, ez oinordetzea izaki berri batengan arbasoen bekatuak garbitzeko pisua, kultura inperializatu honen joera zibilizatzailearen etengabea hedatzeko exigentzia itotzea.

Nekearen hizkuntzak, zauriarenak, minarenak, erakuts ditzakeen lehen gauzetako bat da zein sintonia hurbilean egotera irits gaitzkeen gorputzaren (eta, zentzumenak garatzeko aukera izanez gero, haren bitartez pertzibitzen dugun mundu honen) mugimendu sotilenarekin ere. Plazeren estimulazioaren ekonomia geldiezinan, aukera bereziki aberatsa izan daiteke txanponaren beste aldearen hizkuntza ezagutzen hastea.

Ez diogu zaurgarritasunari nahikoa errekonozitzen zenbat ikasten dugun denok gure izate organiko zein emozional zein espiritualari buruz gaitzaren bitartez. Bide bakarra ez bada ere, bazterrezina dela esango nuke. Gaixotasunak, osasunaren inguruko perspektiba berriak ematen dizkigun egoera bezala, eta bizitzaren eta heriotzaren mugekin duen loturagatik, zerikusi handia du ezagutza sakratuarekin. Gaitza eta sendagaia, *medizina*, 'jatorrizko' hainbat herrik erabiltzen duten zentzuarekin, *pharmakon* eta pozoi-sendagai-araoa, dosiaren ezagutza, izateen arteko mugimendua, hiltze eta berpiztea, gaixotze eta sendatzea, esperientziatik ikastea. Sugearen potentziak.

## Bihurtu ote dezakegu Anbotoko dama mito beharrean erritu?

Mundua bera sendatu ezin dugun zauria denean, zer esan nahi du osasuna bilatzen egoteak?

Garai hauek ezin dira bizi; haien kontra bizi gara, ahal den heinean. Hala ere, dio Lourdes Iriondoren kantuak, nora joan gintezke? Normala denok egotea hain nekatuta. Badirudi gure gorputzek badakitela hiltzen ari den planeta batean bizi garela, guk hilko dugun planeta batean. Engainatzen uzten saiatzen gara, baina erabat *zonbi* bihurtzera iristen direnek besterik ez dute benetan lortzen. Bizirik dagoen gorputzak ezin du egia hau ahaztu, ez dirudiela mundu berri posiblerik existi daitekeenik. Ez du sinisten, eta mintzen den gorputza alde batera uzten saiatu den 'gu' hori greba orokor indefinitura behartuta bidaltzen saiatzen dabil. Eta 'guk' ez utzi nahi.

Ondoeza politizatzea, hori dugu orain kontsigna. Hori despolitizatze-ko mekanismoak ere abian dira. Eslogan bihurtzea, adibidez. Gertakari politikoaren eta 'politikaren' esparruen nahastea. Kapitalismo terapeutikoaren zabaltzea. Aktibismo hiperaktiboen moralismoa. Beste hainbat.

Politizazioaren bidean, badaude hainbat elementu zeinekin komeni zaigun adiskidetzen hasi eta dialogatzen ikastea, horien ordeztzatzen zaiguna alde batera utzi nahi badugu: heriotza (eta ez tanatopolitika), gaixotasuna (eta ez eugenesia), bakardadea (eta ez abandonua), geldotasuna (eta ez McMindfulnessa), ez-egitea (eta ez apatia). Gehitu hemen zuenak.

Zauriei hitz egiteko hizkuntza berri bat behar dugu, zahar-berri bat agian, eta horrela begiratuta erraza da ikustea nondik datorren azkenaldian sumatzen den mito eta magia zaharrak berpizteko gosea.

Psikodelikoen erabilera terapeutikoez, adibidez, pare bat hamarkada daramatzate abiadura hartzen, eta irekierak ikusten hasi gara hainbat lurraldetan. Instituzio psikiatriko, mediko eta zientifikoen dispositiboek neurtu eta bideratua dator, nahiz eta hainbat komunitate eta mugimendu herrikoi dauden ere lan horren atzean, eta guztiz deuseztatzea lortu ez den jatorrizko herrien ohituren zenbait praktikatzailerik. Jokaldi estrategiko arriskutsua da dispositibo hain boteretsuekin alianztzak egitea, despenalizazioa baldin bada ere helburua, hori denean. Zeren ez genuke ahaztu behar, abortuaren auziaren inguruan (gutxi) batzuek seinalatu izan duten bezala, ez direla gauza bera despenalizazioa eta legalizazioa, eta bigarren horrek, orokorrean, kaiola ireki baina, giltza zeinen eskuetan egon daitekeen negoziatzeko balio duela, eta latzak dira negoziazioak beti periferietan. Enpresa farmazeutikoak eskuak igurtziz dabilta, eta haien ondoan beti zaintzaren eta zigorraren profesionalak.

Ikusi beharko dugu non, nola eta nortzuk izango diren psikodelikoen *kultura askatzaile* bat sortzeko gai, psikiatren esku odoltsu eta terapeutika *kapitalistizatutik* indar sendatzaileak berreskuratzeko eta organismo magikoen eskutik garaiarekin bateragarriak diren hizkuntza berriak sortzeko.

Are prekarioago ikusten dut ezagutza sakratuak mitologia eta errituraren esparruan bilatzearen egoera, Europan behintzat. Kontua da ez garela inoiz mitoen arotik atera. Mundu desliluratuan bizitzea tokatu

bazaigu ere, modernitatearen mitoek gobernatu dituzte azken hainbat mende. Xaman eta sorgin izangai asko dabil ez dakiena kapitalismoak ere magiaren esparruan indar askorekin jokatzeko duela. Sakratuaren berpizteek *papeleta* asko dituzte modernitatearen mundu desliluratua jasan ahal izaten jarraitzeko kontsolamendu hutsean gelditzeko. Borroka dimentsio magikoan egiten saiatzeko, bertan mugitzen diren indarrak ezagutzea litzateke ezinbesteko lehen pausoa. Leonor Silvestriren *Magia heterocapitalística y brujería anti(psi)stema* (Queen Ludd, 2024) proposatzen dizuet hasierako gidaliburu bezala.

Barkatuko didazue hain zakarki esatea, hatzak erreta nabil-eta idazten, baina gure mitologia zaharrekin dialogoa berreskuratzeko azkenaldian ikusi ditudan saiakera batzuk nahiko traketsak iruditu zaizkit, nolabait esatearren. Galdera deserosoa dut gainean, ea milaka urteko hizkuntza bat bizirik mantendu izanak (oraingoz, beti oraingoz) zenbateraino milaka urteko kultura herrikoi bat mantendu dugulako engainura eramaten gaituen, ez gaudela Europako gainerako herriak bezain suntsituak gure gaitasun mitologiko-espirtualean, bereziak gara.

Baina sorginen potentziak ez dira biologikoki oinordetzen; suntsituta-ko liluraren munduaren hizkuntza da gure mitologiarena, eta mundu hori ez dugu bizirik mantentzea lortu. Basoko espirtuek hitz egiten digutenean, hitz egiten badigute oraindik, ez diegu ulertzen. Sinkretismo erlijioso paganokristauaren barneko balioen norgehiagoka badakigu zein alde irabazi zuen, eta nahiko argia da ere zein instituzioek hartu dituzten horiek oinordekotzan Jainkoaren erailketa entzutetsu harez geroztik. Orainaren jainko diren dispositiboek paganismoa ‘tradiczio’ izenpean eta apaingarri bezala besterik ez dute onartzen, aniztasuna zentzu kamutsenean. Sorginkeriagileak epaitegira bidaltzen jarraitzen dituzte, edo toki okerragoetara. Indarra duen zeozer mugitzen hasten denean, munstroen esparruan gertatuko da, zalantzarik gabe. Akelarrea ez da telebisatua izango.

Irekita jarraitzen duen sorgin-ehiza deitzen diogun genozidioaren zauria erakusten al dugu? *Ikusten* al dugu?

Hona hemen erritu mitologiko garaikideen inguruan, gertaera ezinbestean kolektiboak diren heinean, jakitea interesatzen zaizkidan hainbat kontu: mitologia zaharren indarrei dei egiten diegunean, mundu honetako zauriekin lagunduko diguten dimentsio ezagun eta ezeza-

guneko izakiekin hitz egiteko hizkuntzen bila gabiltza, ala gutasuna eraikitzeke nahi ditugu soilik plazara ekarri? Gutasun horrek desberdindu ditzake *herria* eta *jendetza*? Eta zein du nahiago? Euskal kulturaren historian sorkuntza ederrak egin dituzten guztiei errespetu osoz, zer esan nahi du gutasun jendetsuena prest egotea beti *Xalbadorren heriotzean* bat egiteko baina inoiz ez *Amonaren mengantzan*?

Gutasun horrek zer periferiekin ditu aliantzak, eta zeinekin ez? Gutasun hori zer zauri eta norenak zaintzeko sortzen dugu, eta zein eta norenak ez?

Gaitzaz eta sendatzeaz ari bagara, eta, beraz, geldiarazi behar den gaitzotzen gaituen mundu honetaz, erritu baten indarra neurtzeko modu interesgarri bat izan daiteke, adibidez, modernitate, estatu, instituzio mediko, erregimen heterosexual, arraza teknologia, muga nazional, militantzia agortu, ekonomia, demokrazia eta halako beste hainbat eta hainbat dispositibo sostengatzen dituzten mitoek ezartzen dizkiguten tabuak erretzeko duen gaitasunaren bitartez. Zauria erakutsi eta harekin haren hizkuntzan hitz egitearen tabua, adibidez. Beste hainbat eta hainbat ditugu gainean. Egin zuen proposamenak, eta zorroztu punteria, pospolo gutxiarekin ere nahiko su egin daiteke eta.

### Izenburuak

Virginia Woolf: *Gaixo egoteaz*

Nakar: *Xamurtasun erradikala*

Maialen Akizu: *Mitoaroa II*